

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresan negozio-ereduak ahalbidetzen dituzten hainbat hornitzaile beharko ditugu. Enpresa guztietan bezala, beharko ditugu hainbat akziodun gure lana aurrera bultzatzeko. Hornitzaile mota hauek izanda, murriztu ditzakegu enpresaren arriskuak, adibidez, diru gutxiegizate materiala erosteko, edota kalitate txarreko produktuak izatea biltegian.

Konfiantzazko pertsonak ere beharko ditugu, kalitatezko produktuak eta baliabideak eskaintzen dizkigutenak gure produktua sortzeko. Akziodun pertsonak hornitzaile mota honetan sartu ditzakegu ere.

Bestalde, beste enpresa batzuekin aliantzak sortzea erabaki dugu. Adibidez autoak fabrikatzen dituzten enpresekin, modu honetan, enpresa horrek auto bat saltzen duen bakoitzean gure zerbitzuak eta gure produktua eskeiniko dio bezeroari. Honek salmenta handitzen eta merkatuaren barruan lekua irabazten lagunduko digu.

